



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA  
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza  
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE  
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental  
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

EBAZPENA, 2021EKO MARTXOAREN  
30EKOA, INGURUMEN-KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIARENA,  
ZEINAZ EAE-KO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO 2030ERAKO PLANAREN IRISMEN-  
DOKUMENTUA FORMULATZEN BAITA

## AURREKARIAK

2021eko otsailaren 5ean, une hartako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak eskabide bat aurkeztu zuen ingurumen-organoaren aurrean, EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskineko formularioa (211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena).

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea bete zuen, arau hauetan ezartzen denari jarraikiz: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua, eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikulua; kontsulta-izapide horren emaitza espedientean jaso da.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharrak egiteko.

Indarreko legerian txostenak jasotzeko ezarritako epea igarota, eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak behar beste judizio-elementu badituela ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua arabera.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenen ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 42. artikuluari jarraikiz, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek modu egokian bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa burutzea, plangintza-prozesuaren lehen faseetan eta alternatiba egokienak hautatzea helburu hartuta, betiere, jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak kontuan izanik. Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo zaie administrazio publiko batek hartzen edo onartzen

Donostia kalea, 1 - -01010 Vitoria-Gasteiz



dituen plan eta programei, bai eta horien aldaketei ere —eta beti ere horiek egitea eta onartzea legez edo erregelamenduz ezarritako xedapen batek eskatzen badu—, baldin eta plan eta programa horiek esparrua ezartzen badute etorkizunean baimena emateko legeari jarraikiz ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuei.

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa egiten hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Lege horrek hasierako eskabideari erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1 artikuluan; eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak izan dira kontuan, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari dagokionez, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari dagokionez eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari dagokionez, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedientean jasotako txostenak aztertu dira eta honako arau hauek ikusi dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea; eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehena. – EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-efektuetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

##### 1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Plana (HPKP) egiteko arrazoia da indarreko planaren (HPKP 2015-2020) plangintza-aldia amaitu dela, eta Europan, Estatuan eta autonomia-erkidegoan araudi ugari jarri direla indarrean, eta, beraz, plana eguneratu egin behar dela.

Ebaluatzen den Planak, funtsean, indarrean dagoen planaren xede nagusiari eusten dio, bai eta planaren lurralde-eremuari ere. HPKP 2030 Planak indarreko plana berrikusi eta eguneratu du, honako helburu nagusi hauekin:

a. Hondakinen prebentzioari eta kudeaketari eta hondakinen erabilera- eta tratamendu-teknologiaren aurrerapenei buruzko araudi eta estrategia berrietan jasotako zehaztapenak txertatzea. Bereziki, Planak honako tresna hauetan ezarritako helburuak eta jarraibideak biltzen ditu:

- Europako Itun Berdea (Green Deal), eta, esparru horren barruan, Ekonomia zirkularrerako EBren Ekintza Plan Berria. Plan horrek hainbat neurri jasotzen ditu, erabilitako baliabideak EBko ekonomian ahalik eta denbora luzeenean mantenduko direla bermatzeko.
- Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030: hiru helburu estrategiko ditu, eta horietako bat BPGd-aren unitate bakoitzeko hondakinen sorrera-tasa % 30 murriztea da.
- Klima-aldaketaren Euskadiko estrategia (Klima 2050): produktuen bizi-zikloan zehar berotegi-efektuko gasen isuriak ahalik eta gehien murriztea planteatzen du, haien kokapena edozein dela ere.

b. Honako helburu estrategiko hauek ezartzea 2030erako:

- Prebentzioa: BPGd-aren unitate bakoitzeko guztizko hondakinen sorrera-tasa % 30 murriztea, 2016ko guztizkoaren aldean.
- Gaikako bilketa: jatorrian hondakinen % 85 bereiztea lortzea.
- Balorizazioa: hondakinen % 85a bigarren mailako baliabide bihurtzea lortzea, eta, aldi berean, balorizazio energetikoa % 15 baino gutxiagora mugatzea.
- Ezabaketa murriztea: hondakinen kudeaketa murriztea ezabaketa-eragiketen bidez, sortutako hondakinen % 15 baino gutxiagora arte.

c. Instalazio berriak egiteko edo lehendik daudenak aldatzeko proposamenak egitea, helburu hauekin: EAEko isurketa-autosufizientzia 2030era arte bermatzea, eta erosleei ziurtasuna emango dien kalitatezko materialak eta bigarren mailako produktuak arrazoizko prezioetan fabrikatzen eta merkaturatzen direla bermatzea.

HPKP 2030 Plana erkidego mailako plan bat da, eta helburua bikoitza du: EAEko ingurumen-arazo jakin bati erantzutea —alegia, hondakinak sortzeari eta kudeatzeari—; eta European eta Estatuan arlo horretan ezarritako lege-baldintzak betetzen direla bermatzea. Beraz, Esparru Plan bat da, eta xehetasun maila handia du; izan ere, egungo problematikari aurre egiteko beharrezkoak diren jarduketak zehazten ditu, baita azpiegitura mailan ere. Hala ere, planteamendu kontzeptuala ezartzen du, eta ez du asmorik beharrezkotzat definitzen diren instalazioen kokapenak eta ezaugarri zehatzak identifikatzeko; aitzitik, planteamendu hori ondoren garatzeko oinarriak ezartzen ditu.

Plan hau Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen eta 2018/851 Zuzentarauaren aplikazio-esparruan sartutako hondakin guztiei aplikatuko zaie, baldin eta EAEko lurraldean sortzen badira, edo EAETik kanpokoak badira eta Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresen bitartez kudeatzen badira.

Plana honela egituratzen da: EAEko diagnostiko bat egiten du, gaur egun sortzen diren hondakinen eta horien kudeaketaren gainean; plangintzarekin lortu nahi diren erronkak ezartzen ditu; jarraituko den ikuspegi strategikoa definitzen du; eta Ekintza Plan bat ezartzen du, Planaren funtsezko jarduketak definitzeko.

Ondorioz, Planaren ingurumen-ebaluazio strategikoaren ardatz nagusia zera izango da, hondakinak kudeatzeko etorkizuneko instalazioak kokatzeko eta instalazio horien neurriak ezartzeko irizpideak egokitzea. Irizpide horiek EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planaren esparruan sartzen diren eta hondakinen kudeaketarekin eta proiektuen diseinuarekin lotzen diren planetan erabili beharko dira. Hauek izango dira jarduketak:

- Instalazio berriak egitea edo lehendik daudenetan aldaketak egitea, 2030era arte EAEko isurketa-autosufizientzia bermatzeko, eta aldi berean, isurketak minimizatzea eta lehendik dauden instalazioak behar bezala ixtea edo horiei behar bezalako amaiera ematea.

- Instalazio publiko-pribatu berria egitea, agregakinen, lurren eta bigarren mailako beste lehengai batzuen tarteko biltegitratzea eta haien kalitate-kontrola egiteko.
- HPKP 2030 Planean definituta ez dauden baina haren babesean sor daitezkeen beste instalazio batzuk egitea; izan ere, instalazio horiek oso garrantzitsuak izan daitezke Planaren helburu estrategikoak eta espezifikoak betetzeko.

Planari dagokionez, hainbat alternatiba aztertuko dira, eta aztertutako alternatibak honako multzo kontzeptual hauekin lotzen dira: 0 alternatiba edo esku ez hartzekoa; Planaren irismena definitzeko alternatibak; Planak finkatzen dituen helburuekin lotutako alternatibak; Planaren ikuspegiaren gaineko alternatibak; eta funtsezko jarduketan eta gainerako jarduketan artean hautatzeko alternatibak. Azken alternatiba horiek funtsezkoak dira ingurumen-ebaluazioari dagokionez.

## 2. Ingurumen-helburu estrategikoak, eta aplikatu beharreko jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak

Plana egiteko, 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-ildoak hartuko dira oinarri nagusitzat. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, Planari aplikatzekoak diren lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapenak hartuko dira kontuan.

Zehazki, Plana egituratzeko, garapen jasangarriko printzipio hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Lurzoruaren erabilera arrazoizkoa eta intentsiboa egitea, eta dagoeneko artifizialdutako lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzoru eta lurzoru naturala urbanizatzetik babestuz.
- b) Hondakinen tratamendua eta kudeaketa egiteko azpiegituren sare integratua ezartzea, gertuagoko instalazio egokietan kudeatu ahal izateko. Eta hori guztia egiteko, teknologia eta metodorik egokienak erabiliko dira, ingurumenaren eta osasun publikoaren babes maila handi bat ziurtatzeko.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzoru modu jasangarriagoan erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Habitatak eta espezieak, ingurune naturala eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- e) Paisaiak eta kultur ondarea kontserbatzea eta hobetzea.
- f) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- h) Honako baliabide natural hauen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzoru eta materialak.
- i) Energia-aurrezte, eta energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzapen-neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak minimizatzea.
- m) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen nahiz lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuz.



- EAEko Basoen Inbentarioan jasotako baso naturalak eta erdinaturalak.
- EAEko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian sartutako espazioak.
- EAEko paisaia berezi eta nabarmenen katalogoaren eta Paisaiari buruzko Katalogo eta Gidalerroen arabera paisaia-balioagatik katalogatutako inguruak.
- EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan dagoeneko bildu diren gunek.
- EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen arloko Planeko babes bereziko beste gune batzuk.
- EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean jasotako beste hezegune batzuk.
- EAEn Europar Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrologoak Kudeatzeko Baterako Planean jasotako Interes Bereziko beste gune batzuk.
- Europar Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskina), eta, bereziki, Natura 2000 Saretik kanpoko lehentasunezko habitatak.
- Hegazti-espezie mehatxatuentzako beste eremu interesgarri batzuk, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarri direnak. Agindu horren bidez, hegazti-espezie mehatxatuen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioarako lehentasunezko eremuak mugatzen dira, eta abifaunaren babes-eremuak argitaratzen dira; izan ere, babes-eremu horietan, hainbat neurri aplikatuko dira goi-tentsioko aireko linea elektrikoek kontrako talka edo elektrokuizioengandik babesteko.

Era berean, hauek ere ingurumen-eremu garrantzitsuak dira: balio agrologiko nabarmena duten lurzoruak, eta Kantauri Ekialdeko, Kantauri Mendebaldeko eta Ebroko Mugape Hidrologikoetako Plan Hidrologikoetan ezarritako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremuaren barruko Eremu Babestuen Erregistroko (EBE) beste eremu batzuk, arestian aipatutako artean sartuta ez daudenak; baita lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren ondoriozko babes-erregimenen bat duten naturaguneak ere, esaterako, Txingudiko Eremuko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Plan Bereziak antolatutako eremuak.

Kultura-balio nabarmena duten eremuen artean, babes bereziko eta ertaineko kultura-eremu edo ondareak daude, bai eta ustezko arkeologia-eremuak ere.

Ingurumen-arrisku garrantzitsuak dituzten eremuen artean, hauek jasotzen dira: Lehentasunezko Fluxu Eremuak eta 10 eta 100 urteko errepikatze-denbora duten uholde-arriskuko eremuak, baita 500 urteko errepikatze-denbora dutenak ere; eremu higagarriak edo higatzeko arriskua dutenak; kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak pairatzen dituzten edo pairatu dituzten lurzoruak; akuiferoen kutsadurarekiko eremu kalteberak; eta klima-aldaketari lotutako arriskuak dituzten eremuak.

#### 4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak

Hondakinak kudeatzeko etorkizuneko instalazioei dagokienez, Planak ez du instalazio horien kokalekurik eta ezaugarri zehatzik identifikatu; aitzitik, instalazioak garatzeko oinarriak ezartzen ditu, eta zehazki, hondakinak kudeatzeko etorkizuneko instalazioak kokatzeko irizpide jakin batzuk jasotzen ditu. Era berean, hondakinak zabortegian biltegituz ezabatzeari dagokienez, Planean adierazten denaren arabera, lehendik dauden instalazioak aldatzeko edo handitzeko aukera soilik emango da Planaren helburuetan ezarritako gaitasunak betetzeko beharrezkoa bada.

Irizpide horiekin, funtsean, definitu nahi da zein eremu diren ezegokiak instalazio horiek jartzeko, eremu horiek duten natura-, paisaia- edo kultura-balio handiengatik, edo erakusten dituzten ingurumen-arriskuengatik. Aldiz, lurzoru eraldatuak edo artifizializatuak dituzten eremuen erabilera sustatu nahi da, hala nola meatze-zuloak, non lur eta arroka naturalek nahitaezko zaharberritzerako balio ahal izan dezaketen. Horri dagokienez, kontuan hartu behar da eremu horiek ez direla kasu guztietan egokiak izango horrelako erabileretarako; izan ere, antzinako ustiategi batzuek, denboraren poderioz, naturalizazio-prozesuak jasan dituzte gizakiaren esku-hartzerik behar izan

gabe, eta eremu horiek hegazti harkaiztarrek atsedean hartzeko eta habiak egiteko bihurtu dira, bai eta anfibioentzako eta basafaunako beste espezie batzuentzako habitatak eratzeko ere.

##### 5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapideen bidez jasotako txostenetan agertzen diren ingurumen-alderdi garrantzitsuenak jaso dira.

Hondakinak kudeatzeko etorkizuneko instalazioek izango duten ahalmena kalkulatzeko, txosten horiek honako alderdi hauek aztertzea proposatzen dute:

- Ingurumen Azterlan Estrategikoak baloratu egin beharko lituzke hondakinak kudeatzeko egungo azpiegituren gaurko egoerak sortzen duen metatze-inpaktua eta lurraldeak azpiegitura berriak egiteko edo daudenak handitzeko duen harrera-ahalmena.
- Hondakinak jasotzeko gaitasuna balioesteko, kontuan hartuko dira Bizkaiko Errepideen II. Lurralde Plan Sektorialeko hondakinak sortzeko aurreikuspenak.

Hondakinak kudeatzeko instalazioak kokatzeko irizpideei dagokienez, txosten horiek honako hauek egitea proposatzen dute: ingurumen-elementu jakin batzuk kontuan hartzea, babes-mailak eguneratzea, edo, hala badagokio, Ingurumen Azterlan Estrategikoko alternatiben azterketan hainbat alternatiba balioestea:

- Euskal Kultura Ondarearen Elementuak. Kultura-ondarearen babes-mailen aipamena babes berezira eta ertainera egokitu behar da, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen arabera. Era berean, kultura-ondasunak izateagatik babestutako eremuak edo ustezko arkeologia-eremuak izateagatik babestutako eremuak baztertzeko irizpidea kultura-ondarearen inbentarioan agertzen diren elementuetara zabaltzea gomendatzen da, kultura-ondasun gisa babesteko edo ustezko eremu gisa izendatzeko proposatzen diren elementuen artean.
- LAGen Babes Bereziko Eremuak gehitu behar dira, instalazio berriak jasotzea baimentzen ez duten espazio gisa. Era berean, kokapena ezartzeko irizpideen artean, arrisku naturalen, klima-aldaketaren eta azpiegitura berdeen baldintzatzaile gainjarriak hartuko dira kontuan; izan ere, hasiera batean, eremu horiek ez dira gomendatzen instalazio berriak kokatzeko, salbu eta kokaleku hori egokia dela egiaztatzen duten azterlan espezifikoak egiten badira.
- Hondakinak kudeatzeko instalazio berriek balio estrategiko handiko lurzoruei eragiten badiete, mota horretako lurzorua galtzearen ondoriozko konpentsazio-proposamen bat barne hartu beharko da.
- Plana aplikatuz lantzen diren planek eta proiektuek Natura 2000 Sareko espazioetan izan dezaketen eraginari dagokionez, balizko eraginak espezifiki balioesteaz gain, dagokion eremua kudeatzeko eskumena duen organoari txostena eskatu beharko zaio.
- Agregakinak, lurrak eta bigarren mailako beste lehengai batzuen tarteko biltegitratzea eta kalitate-kontrola egiteko instalazio publiko-pribatu berriari dagokionez, planteatzen den azpiegituraren ezaugarriekiko alternatiben ingurumen-azterketa egin beharko da.
- Ez da betelanik egingo antzinako harrobietako lur eta harri naturalen bidez, babestu beharreko biodibertsitatearen elementuak baitituzte.
- Lur eta harri naturalen bolumen handia har dezaketen eta ingurumena lehengoratzeko balio dezaketen eremu degradatuak identifikatu behar dira. Hondakin-mota horiek jasotzeko bi aukera proposatzen dituzte: Mantuliz sektoreko Plan Partziala, Derioko udal-mugartekoa, eta Bilboko Portua.
- Lurraldean konektagarritasun ekologikoa galtzea saihesteko irizpideak integratu behar dira, habitaten eta espezie basatien zatikatzeari aurre egiteko.
- Hondakinak kudeatzeko instalazioen kokapena aukeratzeko irizpideen artean, eragina izan dezaketen babes zibileko arrisku hauek hartu beharko dira kontuan:

- ✓ Uholde-arriskuari dagokionez, Kantauri Ekialdeko, Ebroko eta Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoetan eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoa bete beharko da; eta drainatze-obrak diseinatzeko orduan, prezipitazio-isomaximak hartu beharko dira kontuan, mm/egun bitartean eta 500 urteko errepikatze-denborarako (datu horiek EAEko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralaren Azterlan Plubiometrikoan daude jasota (Eusko Jaurlaritza, 1992)).
- ✓ Baso-suteen arriskuari dagokionez, zabortegien kasuan, honako hauetan jasotako mugak eta baldintzak hartu behar dira kontuan: Baso-suteen Arrisku Larrialdietarako Babes Zibileko Plangintzarako Oinarrizko Gidalerroa (2013ko azaroaren 15eko Ministroen Akordioaren bidez onartua) eta EAEko Baso-suteen Arrisku Larrialdietarako Plan Berezia.

#### 6. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Planean jasotako hainbat zehaztapenek indarreko Planean (2015-2020) ezarritakoak aldatzen ditu. Ingurumen-ebaluazio berriaren ardatz nagusia jarduketa-proposamen berriek sortutako eragin espezifikoak izango dira. Alegia, kontuan hartu behar diren ingurumenaren gaineko eraginak honako hauek izango dira soilik: Planak jasotzen dituen proposamen berrien edo dagoeneko existitzen direnen aldaketen ondoriozkoak; eta ez dira kontuan hartuko onartutako plangintza aldatu izan ez balitz ere gertatuko lirartekeen ondorioak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (IAE) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Aurrekoaren arabera, eskatutako edukiek ondoren azaltzen den edukia izan beharko dute eta egitura honekin aurkeztu beharko dira:

1. Proposatutako Planaren deskribapena
  - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
  - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
  - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumenaren karakterizazioa
  - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
  - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da IAEak hurrengo alderdietan sakondu behar duela, gutxienez, jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

##### 6.1. Proposatutako Planaren deskribapena.

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratu duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketan ondorio kaltegarriak



ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin azalduko da:

6.1.1. *Plangintzaren esparrua eta helburuak:*

- a) Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen Plana onartzeko eta abian jartzeko prozedura, eta sustatzailea, organo sustatzailea eta behin betiko onespeneraren organo substantiboa identifikatuko dira.
- b) Identifikatuko da ea zer plan edo programa dauden hierarkikoki Planaren gainetik, haien helburu eta zehaztapenak Planaren bidez garatzen diren kasuetan. Era berean, Planarekin hierarkia-harremanik ez duten eta arlo ezberdinetakoak (erkidegokoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak) diren beste plan eta programa batzuk ere identifikatuko dira, baldin eta Plana diseinatzeko aplikagarriak badira. Gutxienez, honako plan, arau edo estrategia hauek hartu beharko dira kontuan:
  - Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana (HKEEP), 2016-2030 aldikoa.
  - EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), 2019 aldikoa.
  - Hainbat Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. Plan hau bereziki hartuko da kontuan balio agrologiko handiko lurzoruei eta onura publikoko mendiei dagokienez.
  - EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
  - EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala.
  - Itsasertza Babestu eta Antolatzeko LPS.
  - EAEko Errepideen Bigarren Plan Orokorren (2005-2016 aldia) berrikusketa eta EAEko Errepideen Hirugarren Planaren zirriborroa (2017-2028).
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
  - Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzuaren Sorkuntza Publikoaren Lurralde Plan Sektoriala.
  - Kantauri Ekialdeko, Kantauri Mendebaldeko eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoak, eta bereziki uholde-arriskuko eremuekin lotutako zehaztapenak eta Eremu Babestuen Erregistroa.

Zehazki, hondakin asko sortzearekin lotzen diren planak (herri-lanak, hirigintzako, nekazaritzako, jarduera ekonomikoetako lanak, etab.) edo lurzuaren erabilera mugatzen duten planak aztertuko dira, eta aldi berean, haien helburuak eta neurri-programak HPKP 2030 Planekoekin koherenteak eta bateragarriak diren aztertuko da.

- c) Planaren helburu zehatzak deskribatuko dira.
- d) Hierarkian Planaren gainetik dauden planek edo programek ingurumena babesteko izan ditzaketen irizpideak, helburuak eta zehaztapenak zehaztuko dira, planari aplikatzekoak badira.
- e) Hierarkian gorago dauden plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazioko prozeduraren bat ezarri bazaie, prozedura horiei amaiera eman zieten ingurumen-adierazpen estrategikoen datak eta jaulkipen-egintzen erreferentziak azalduko dira, eta adieraziko da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren eta zer estekatan kontsulta daitezkeen. Kasu horretan, Planaren xedeari edo eremuari eragiten dioten ingurumen-adierazpen estrategiko horietako zehaztapenak zehaztu beharko dira, bai eta ingurumen-ebaluazioko irizpideak ere, ingurumen-adierazpen estrategikoetan edo bere garaietan indarrean zegoen araudia aplikatuz igorritako dokumentu baliokideetan ezarritakoak badira.

- f) Argi eta garbi adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta estrategietan, baita Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Europar Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), Plana diseinatzeko aplikagarriak direnean. Plan edo programa sektorialen helburu eta jarduketa-ildoekin gainjartzeak, gatazkak edo bateraezintasunak ager daitezkeen kasuetan, jarduketa-alternatibak ebaluatu behar dira, antzeman diren balizko arazoak eta behar diren koordinazio-neurriak azalduz. Berriaz justifikatu beharko da txosten honen 2. apartatuan jasotako ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak nola bete diren.

#### 6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena.

- a) Planean zer plangintza mota garatuko den adieraziko da, Planaren bidez zer neurri edo jarduketa garatu nahi diren zehaztuz.
- b) Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektuen ezaugarriei buruzko aurreikuspen bat egingo da. Kontuan hartuta Planak hondakinak kudeatzeko etorkizuneko instalazioetarako oinarriak ezartzen dituela, hondakinak kudeatzeko azpiegiturak instalatzeko egokiak ez diren edo baztertzen diren eremuak adierazi behar dira. Era berean, naturaren, kulturaren edo ingurumen-arriskuaren ikuspuntutik garrantzi txikia izan dezaketen eremuak identifikatuko dira, baldin eta hondakinak kudeatzeko azpiegitura jakin batzuk eraikitzeke erabil badaitezke; eta horrez gain, lur eta arroka naturalen bolumen esanguratsua har dezaketen espazio degradatuak ere identifikatuko dira, espazio horietako ingurumena lehengoratu ahal izateko. Epigrafe honetan jasotako informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, ahal den neurrian.
- c) Ingurumenari eragin ahal dioten Planaren ekintzak zein diren deskribatuko da, eta garrantzia gehienetik gutxienekora hierarkizatuko dira. EAEko isurketa-autosufizientzia bermatzeko beharrezkoak diren azpiegituren arloko beharrei dagokienez (hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioa kontuan hartuta kalkulatu), eta hain zuzen ere, Planaren helburuetan ezarritako gaitasunak betetzeko beharrezkoak diren instalazioak egokitzearekin, aldatzearekin edo handitzearekin zerikusia duten beharrei dagokienez, hauek aztertuko dira: instalazioaren kokapen zehatza, izaera, magnitudea, funtzionamendu-baldintzak eta baliabide naturalen kontsumoa. Planean horrela deskribatzen den ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio, IAEaren hurrengo apartatuetan erabiliko dena, ekintzen erreferentziak aipatu behar badira.

Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta erakutsiko du zein den lurraldearen erabilera, bai eta Planeko zer ekintzak, aurreikuspenek eta jarduketak eragin ditzaketen ingurumen-efektu esanguratsuak ere. Hala badagokio, proiektuen kokapen eta tamaina islatuko dituen informazio kartografikoa jaso beharko da.

- d) Adieraziko da zer garapen aurreikusten zaion Planari, behin betiko onartu ondoren, eta plangintzaren ondorengo faseak aipatuko dira, baita Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da nola egin Plana garatzeko tresnen ingurumen-ebaluazioa.
- e) Nolanahi ere, Plana garatzeko denbora-aurreikuspen bat txertatuko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan deskribatutako ekintzetarako zehaztuko da.

#### 6.1.3. Plangintza-aukerak.

- a) Plana formulatzeko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba ezberdinen azaleko deskribapena egingo da. Aukera horiek teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak izan behar dute, eta

honako alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokapena, garapen teknikoa edo teknologikoa, denbora-garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi.

Alternatibak aztertzeko, hondakinak jasotzeko gaitasuna baloratu beharko da, dauden azpiegituren ahalmena eta horiek handitzeko aukera kontuan hartuta. Gutxienez, dauden instalazioak egokitzeko edo handitzeko hainbat aukera aztertuko dira, Planean hautemandako premiei erantzun ahal izateko.

Agregakinak, lurrak eta bigarren mailako beste lehengai batzuen tarteko biltegitratzea eta kalitate-kontrola egiteko instalazio publiko eta pribatu berriei dagokienez, hasierako dokumentuan planteatutako bi aukera hauek aztertuko dira: 3 lurraldeetarako instalazio bat prestatzea, lurraldearen gaineko eraginak minimizatzen; edo 2 edo 3 instalazio prestatzea, bat lurralde historiko bakoitzeko, materialen garraio-fluxuak minimizatzen.

- b) Aukera horien irismena deskribatuko da, aukera bakoitzetik ondorioztatzen diren Planeko proiektu eta ekintzen arteko desberdintasunak argi eta garbi adieraziz, IAEaren 6.1.2 c) apartatuan deskribatzen diren ekintzekin alderatuta. Alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-efektuak baloratzeko, 2. puntuan ezarritako irizpideak erabiliko dira.
- c) Laburpen bat jasoko da adierazteko zergatik baztertu diren plangintza-aukera batzuk eta zergatik hautatu den azkenean proposatutako aukera.
- d) Beharrezkoa denean, kartografikoki jasoko dira aztertu diren aukerak.

## 6.2. Ingurumenaren egungo egoeraren karakterizazioa.

Planaren eraginpeko eremuko ingurumen-kalitateko elementuak deskribatuko dira. Elementu abiotikoak eta biotikoak deskribatuko dira, bai elementu mota bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai haien interakzioen ikuspegitik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren inguruerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara mugatuko da.

Ingurune kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, lana bere osotasunean kontsultatu ahal izateko esteka.

IAEak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

### 6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena.

- a) Ingurune fisikoa. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: arroka ama eta zorupe mota, iragazkortasuna, kalteberatasuna, ur-masa eta -guneak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota.
- b) Natura-ondarea. Halakorik bada, natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak adieraziko dira: landaredia, baso autoktonoak, intereseko habitatak, basafiora eta basafauna, ondare geologikoa, korridore ekologikoak, hezeguneak, onura publikoko mendiak eta mendi babesleak.

Ahal denean, datu kuantitatiboak emango dira, hala nola azalera, populazioaren tamaina, bikote edo banakoen kopurua eta garrantzi erlatiboa EAEko edo haren banaketa-eremu naturaleko populazio osoaren azalera eta tamaina osoari dagokionez. Halaber, honako hauei buruzko datuak emango dira: kontserbazio-egoera, interes-maila, kalteberatasuna, eta Plana gauzatzekoan areagotu daitezkeen egungo presio eta mehatxuak.

Apartatu hau egiteko, natura-intereseko elementuen inbentarioak, katalogoak edo erregistroak berrikusiko dira (besteak beste, plan hidrológicoetako eremu babestuen erregistroak, hezeguneen inbentarioak, baso-inbentarioak, mendien katalogoak edo espezieen zerrenda gorriak).

- c) Paisaia. Paisaia-intereseko eremuei dagokienez, ikuspegi gogoangarriak eta pertzepzioaren ikuspegitik interesgarriak diren beste elementu batzuk izango dira kontuan. Paisaia-katalogoak erabiliko dira, halakorik dagoenean.
- d) Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuen gainean jaso ahal izan diren datu guztiak aurkeztuko dira, honako hauek kontuan hartuta, besteak beste: uholde-arriskua, lurpeko uren kutsadurarekiko kalteberatasuna, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Halaber, airearen, uraren edo lurzorua kalitateari dagokionez zer ingurumen-arazo hauteman diren deskribatuko da, egoera akustikoa barne. Potentzialki kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta potentzialki kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

- e) Kultura-ondarea. Adieraziko da zein den hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes maila. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes eman dion arau-xedapenaren erreferentzia aipatuko da. Ondare immaterialeko elementuak kontuan hartuko dira.

#### 6.2.2. *Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak.*

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuetan oinarrituta, aztertuko da zein den ebaluazio-eremuko ingurumenaren egungo egoera, eta laburki jasoko dira ingurumen-ebaluaziorako prozesuan garrantzitsuak diren ingurumen-alderdiak. Zehatz-mehatz adieraziko da etorkizunean zer ingurumen-alderdik jasan dezaketean Planeko ekintzen eragina.

Horretarako, Plana gauzatzean eten edo aldatu daitezkeen oinarritzko prozesu ekologikorik dagoen jakin beharko da. Ingurumen-ikuspuntutik interesekoak diren eremu, elementu edo egoerei arreta jarri beharko zaie, baita Planaren ondorioz sortuko diren proiektu edo ekintzen kokapena eta ezaugarriak direla eta eragina izan dezaketean hainbat alderdiri ere. Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak ez diren ingurune-alderdiak zehatz-mehatz deskribatzea saihestuko da, eta ahalegin handiagoa eskainiko zaie ingurumen-arloko elementu, prozesu, arazo eta arrisku garrantzitsuenei.

Planean aurreikusitako proiektu eta ekintzen eraginak ebaluatzeko, ingurune fisikoaren zer faktorek eragin dezakeen izango da kontuan, hala nola ur-masen eta -guneen egoera, lurzoruen gaitasun agriologikoa, substratuaren iragazkortasuna eta egonkortasuna, eta ingurune abiotikoaren beste edozein alderdi, baldin eta ebaluazioan kontuan hartu beharrekoa bada.

Espezieen funtzio ekologikoei eta ziklo biologikoari eusteko garrantzitsuak diren eremu eta habitatei arreta jarriko zaie (elikatze, ugaltze, atsedean hartze, sakabanatze edo populazioen arteko truke genetikorako garrantzitsuak diren eremuak). Lehentasunezko habitat eta espezieak, arrotzak

edo gutxi ordezkatuak, kalteberak edo desagertzeko arriskuan daudenak, eta, beraz, babestu beharrekoak daudela izango da kontuan.

Era berean, natura-ingurunea eta paisaia babestearekin lotutako beste alderdi batzuk ere hartuko dira kontuan.

Halaber, arrisku jakin bat prebenitzeko edo murrizteko aurreikusitako plan edo proiektuei buruz eskura dagoen informazioa emango da, bai eta ingurumen-arriskuei eta hautemandako egoera problematikoei dagokienez ezagutzen den edozein administrazio-jarduerari buruzkoa ere, eta arreta berezia jarriko da Plana gauzatzean gehitu, areagotu edo beste bitarteko batzuetara transferitu daitezkeen gaietan.

Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria eta abar.

### 6.3. Proposatutako Planaren ingurumen-ondoreak.

Apartatu honetan, Planaren ekintzek IAEaren 6.2. apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuen gainean izan ditzaketen ondorioak identifikatu, karakterizatu eta baloratu beharko dira.

Planaren efektuak identifikatu eta karakterizatzeko, Planean aurreikusitako ekintzen eta eragina jasan dezaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren arteko interakzioak aztertuko dira, bai eta sor daitezkeen edo areagotu eta larriagotu daitezkeen ingurumen-arazo edo -arriskuak ere.

Karakterizazioan, argi eta garbi zehaztu beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek berezita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

IAEaren 6.1.2.c) apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ondoriozko ingurumen-efektuak deskribatuko dira, apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea berariaz aipatuta. Hala dagokionean, zenbait ekintza konbinatuz sortzen diren efektuak zehaztuko dira.

Gainera, biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan ditzakeen edozer ingurumen-efektu bereiziko da.

Planari lotutako karbono-aztarna ebaluatuko da.

Identifikatu eta kodetutako efektu bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- a. Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- b. Efektuen magnitudea eta irismen espaziala (adibidez, eragindako azalera).
- c. Ziurrenez eragina izan duen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
  - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
  - IAEko 6.2.1 apartatuan jasotako babes-espazioen hauskortasuna, honako bi alderdi hauek kontuan hartuta: kontserbatu behar diren elementuen (habitat, espezie eta prozesu ekologikoen) gaineko efektuak zein diren; eta Planak zein neurritan oztopa edo eragotz dezakeen kontserbazio-helburuak lortzea.
  - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi dezakeenik.

- Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ingurumen-efektuak kuantifikatzeko, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilita. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen ondorio horien iragarpenean.

Era berean, eta ahal bada, efektuak kartografikoki lokalizatuko dira eta, halaber, ahalegina egingo da plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen zehazteko, aurreikuspenen arabera.

Hautemandako efektu hori sortu duen ekintzaren ondorioz, Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatu behar ote diren adieraziko da, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein den eraginpeko plangintza-tresna.

Horrela deskribatutako ingurumen-efektuak hierarkizatu egingo dira, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

#### 6.4. Neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak.

Apartatu honetan, IAEaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko zer neurri aurreikusi diren deskribatuko da.

Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-efektu esanguratsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-, kultura- eta paisaia-baliabideak babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta hautemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurri horiek deskribatu egin beharko dira, eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi den ingurumen-efektu bakoitzarekin lotuko dira, IAEaren 6.3. apartatuan efektuei esleitutako kodea berariaz aipatuta.

Deskribatzen den neurri bakoitzari kode bat esleituko zaio, eta kode hori IAEko hurrengo apartatuetan erabiliko da, erreferentzia erabili behar bada.

Adieraziko da proposatutako neurriak Planaren zein zatitan txertatu diren, eta berariazko erreferentziarekin adieraziko da Planaren zein dokumentu teknikotan jaso diren.

Hala badagokio, prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, baldin eta horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria bada plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, edo Plana gauzatzeko etorkizunean diseinatuko diren proiektuetan.

Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzentze-neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta hori gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adieraziko da.

#### 6.5. Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programak Planaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurriak jasoko ditu. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izan beharko da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko aurreikusi diren neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen eboluzioa zaintzea, bai eta Plana ezarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen eboluzioa ere.

- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-efektuak egiaztatzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihesteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Plana gauzatzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar ote den aztertzea.

Jarraipen-neurriak IAEaren 6.4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin identifikatu eta kodetuko dira, eta horiekin bat etorri beharko dute. Jarraipen-neurri bakoitzerako hauek zehaztuko dira:

- Jarraipenaren xede diren ingurumen-alderdiak edo -aldagaiak eta horien neurketa-adierazleak (kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak).
- Parametro kuantifikagarrientzako gehieneko mugak edo erreferentzia-mailak.
- Kontrol bakoitza Planaren zein gauzatze-fasetan egingo den adieraziko da, bai eta nor diren eragileak edo arduradunak ere.

#### 6.6. Ingurumen-laburpena.

Apartatu honetan ingurumen-alderdiak Planean nola txertatu diren deskribatuko da.

Xehe-xehe aztertuko da zer-nolako arreta eman zaien eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, zeinak IAEaren 6.1.1 f) apartatuan eta, hala badagokio, IAEaren 6.1.1 d) eta 6.1.1 e) apartatueta ere deskribatzen baitira.

Aztertuko da, gainera, zenbaterainoko arriskua dagoen Planak etorkizunean ingurumenean ondorio nabarmenak izateko, eta argudio nahikoak emango dira, egiaztatze ezean, proposatutako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak Planean txertatzen badira, oso arrisku txikia dagoela ondorio nabarmen horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, IAEaren gainerako apartatueta jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

#### 6.7. Laburpen ez-teknikoa.

Emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat ere bilduko du IAEak, eta laburpen horrek, bestalde, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du.

Apartatu horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

### 7. Izapideak: informazio publikoa eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, organo sustatzaileak informazio publikoan jarriko ditu Plan honen hasierako bertsioa eta IAE, gutxienez, 30 egunez. Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak, agiri horiek informazio publikoan jartzearekin batera, kontsulta egin beharko die eraginpeko administrazioei eta interesdunei. Organo sustatzaileak gutxienez erakunde eta interesdun hauei egin beharko die kontsulta:

- Euskal Herriko Itsasertz Mugapea

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa
- EUDEL
- Eusko Jaurlaritza:
  - Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza (Osasun Saila).
  - Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza (Segurtasun Saila).
  - Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila).
  - Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila).
  - Kultura Ondarearen Zuzendaritza (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila).
  - Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza (Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila).
  - URA-Uraren Euskal Agentzia (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila).
- Arabako Foru Aldundia:
  - Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza (Ingurumen eta Hirigintza Saila).
  - Lurralde Orekaren Zuzendaritza (Lurralde Orekaren Saila).
  - Nekazaritza Zuzendaritza (Nekazaritza Saila).
  - Kultura Zuzendaritza (Kultura eta Kirol Saila).
- Bizkaiko Foru Aldundia:
  - Ingurumen Zuzendaritza (Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila).
  - Nekazaritza Zuzendaritza (Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila).
  - Lurralde Garapenerako Zuzendaritza (Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila).
  - Kultura Zuzendaritza (Euskara, Kultura eta Kirol Saila).
- Gipuzkoako Foru Aldundia:
  - Kultura Zuzendaritza Nagusia (Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Departamentua).
  - Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia (Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua).
  - Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia (Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua).
  - Ingurumen Zuzendaritza Nagusia (Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentua).
- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa
- GARBIKER S.A.M.P.
- San Markos Mankomunitatea
- Debabarrena eskualdeko Mankomunitatea
- Debagoieneko Mankomunitatea
- Sasietako Mankomunitatea
- Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea
- Urola Kostako Udal Elkarte
- Tolosaldeko Mankomunitatea
- Txingudiko Zerbitzuak
- Arratiako Udalen Mankomunitatea
- Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Mankomunitatea
- Durangoko Merindadeko Mankomunitatea
- Enkarterriko Mankomunitatea
- Lea Artibaiko Udalerrien Amankomunazgoa
- Lea Ibarreko Udal Txikien Mankomunazgoa
- Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatea
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- Gorbeia Inguruen Partzuergoa
- Añanako Kuadrilla
- Aiarako Kuadrilla
- Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilla



- Gorbeialdeko Kuadrilla
- Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla
- Arabako Lautadako Kuadrilla
- Gasteizko Kuadrilla
- Arabako Kontzejuen Elkarte (AKE)
- Gasteizko Kontzeju Elkarte
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan
- Bizkaiko Ekologistak Martxan
- Arabako Ekologistak Martxan
- Eguzkizaleak Aisialdirako Elkarte

#### 8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua betez, IAEaren egileek kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzaren gaineko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa izan beharko dute, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar besteko kalitatea izango dute. IAEak eta horrekin batera eranstean diren azterketa eta dokumentu guztiek egile horien nortasuna identifikatu beharko dute, eta adierazi beharko dute zein diren haien tituluak eta, hala badagokio, haien lanbide arautua. Egileen nortasuna identifikatzeko, honako hauek adierazi beharko dira: izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bereko beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira, zeinak dokumentuaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango baitira, salbu eta administrazioetik era fedemailean jasotako datuei dagokienez. Atal monografikoak baditu, atal horien arduradunak identifikatu beharko dira.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena; ingurumen-azterketa estrategikoa; informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak; eta laburpen-dokumentu bat, non eta sustatzaileak plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola jaso diren deskribatuko duen: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta azterketa hori irismen-dokumentura nola egokitu den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek aintzat hartu izana.

Ingurumen-organoaren eginkizuna, prozeduraren fase horretan, funtsean, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egitea da, aipatutako arauaren 25. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Jarraibide hauek, funtsean, ingurumen-organoak eskabidea errazago berrikusi ahal izateko, eta, azken finean, aurkeztu den eskabideari buruzko ebazpena ahalik eta bizkorren eta ondoen eman ahal izateko ezarri dira.

Bestalde, jarraibideak lehenik organo substantibora bideratzen badira ere, garrantzitsua da proiektuaren sustatzaileak ere jarraibide hauek ezagutzea eta dagokion guztian betetzea.

Ingurumen Adierazpen Estrategikoa igortzeko eskaera telematikoki aurkeztuko da, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratutako jarraibideak betez, honako esteka honetan:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa ingurumen-organoaren webgunean eskuragarri dagoen dokumentazioa aurkezteko gidaren arabera egin eta aurkeztuko da; gida hori esteka honetan dago:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion\\_eae/eu\\_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf)

Bigarrena. - Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 30a.

INGURUMEN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIA  
(Elektronikoki sinatuta)